

Bilera irekia Udarregiko familientzat

Ekainaren 22an Iruñean ospatuko den Ikastolen VII. Biltzarra dela eta, hausnarketa prozesuan gara Euskal Herri osoko ikastoletan.

Horrela, Ikastola guztietan, lekuko komunitatearekin bilera

irekiak egiten ari gara hausnarketa prozesu horretan nahi duenak bere ekarpena egiteko.

Hiru txosten prestatu dira lanketa horretarako: [Nondik gatoz](#), [Non gaude](#) eta [Nora goaz](#).

Udarregi ikastolan. **martxoaren 20rako aurreikusia genuen saio irekia atzeratu beharrean aurkitu gara. Saio hori, apirilaren 17an egingo dugu arratsaldeko 17:00etan** eraikin gorrian.

Ordu eta erdiko saioa izango da, **17:00etatik 18:30era**. Lehen bi txostenak aurrez irakurrita ekarri beharko lirateke testuinguratzeko eta hirugarren txostenaren lanketa, hau da, Nora goaz txostenarena, saioan bertan egingo genuke gero ekarpenak egiteko.

Saioa egoki antolatu dezagun, eman ezazu izena ondoko [galdetegian](#).



Jangela-zerbitzua

Hona hemen apirileko menuak:

- 3 - 16 urte. [Menu arrunta](#)
- 3 - 16 urte. [Intolerantziadun menuak](#)



Korrika

Martxoaren 14tik 24ra 23. Korrika izango da aurtengo honetan. Usurbildik, **martxoaren 19an** pasako da **22:50ean**. **Udarregi Ikastolak aurtten ere kilometro bat erosi du**. Goazen denok Korrikara!

Korrikan irteten diren ikasleek aukera izango dute goizean ordubete beranduago sartzeko, alegia, LH-ko ikasleak edo 9:00etan edo 10:00etan sartu daitezke eta DBH-koak 8:25ean edo 9:25ean (tarteko orduetan ezingo da sartu, adibidez, 9:45etan).



Korrika txikia

Datorren asteartean Martxoak 19an KORRIKA TXIKI egingo dugu arratsaldeko 15:30etan (HH, LH eta DBH). Ibilbide bat Haranetik abiatuko da eta bestea Santueneatik eta bukaera herriko frontoian emango diogu guztiok elkarrekin abesti batzuk abestuz.

OHARRA: HAURRAK FRONTOIAN BERTAN JASO BEHARKO DITUZUE.
AUTOBUSEAN DOAZEN HAURRETAZ IRAKASLEOK ARDURATUKO GARA.



Udako aisialdi-eskaintza

Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera eskaintzen da.

ikastolan bertan eskaintzen diren udalekuak ez dira antolatu Udaregin.

Izen-ematea maiatzaren 14ra arte dago irekia. [Informazio gehiago...](#)



HAUR-HEZKUNTZA

0-3 urteko familientzat oharra

Haurrak maiz gaixotzen ari direla-eta, hainbat familiak kezka adierazi dute. Mesedez, osasun aholkuak kontuan hartzea eskatzen dizuegu.



Korrika txikia

Datorren asteartean, Martxoak 19an, **korrika txikia** egingo dugu arratsaldeko 15:30etan. Bukaera, herriko frontoian emango diogu guztiok batera abesti batzuk abestuz.

OHARRA: HAURRAK FRONTOIAN BERTAN JASO BEHARKO DITUZUE.



Paperezko poltsa

Gogoratu laster oporrak hartuko ditugula eta lanak etxera eramateko paperezko poltsa ekartzeaz.



Zorriak HH4

HH4-ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Irteera LH4

Martxoaren 20an, asteazkena, egun osoko irteera izango dugu. Donostiara trenez joango gara eta Aquarium-a bisitatuko dugu. Taldeko txartelarekin joango garenez, ez dute Mugi txartela eraman beharrik.

Honako hauek eramatea gomendatzen dizuegu: hamaiketakoa, bazkaria eta ura.



Irteera-kobrantza

❖ LH5

GAUR, Pagoetako eta kurtso amaierako irteeraren kobrantza egingo da. Kostua **37,75 €** da eta honela banatzen da:

- Pagoetara autobusa: 7,65 €
- Pagoetako parketxera sarrera: 4,50 €
- Arritxulo 2. Zatia: 25,60 €



❖ LH1

Datorren astelehenean, martxoak 18, Mendukilora egindako irteeraren kobrantza egingo da. Kostua **21,60 €** da eta honela banatzen da:

- Mendukilora autobusa: 11,60€
- Sarrera eta tailerrak: 10,00 €

DBH

Ebaluazio-txostenak

Gaur igoko dira DBH-ko ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora.



DBH1 irteera-kobrantsa

Gaur, Arantzara egingo dugun irteeraren 2. zatiaren kobrantsa egingo da. Kostua **30 €** izango da.



Irteerak

❖ DBH1

DBH1eko ikasleekin datorren ostegunean, hilak 21, Biologia eta Geologia arloekin lotuta, Arditurrira joango gara. Ikastolara 16:00ak aldera iritsiko gara. Eraman beharrekoak: hamaiketakoa, bazkaria, ura eta Mugi txartela.



❖ DBH3

DBH3koekin datorren astelehena, hilak 18, Airearen kalitatea FITOarakatzen proiektuaren markoan, punta-puntako ikerketa-laboretegi bat bisitatzeko aukera izango dugu, IdAB-CSIC Mutiloan (Nafarroa) kokatua. Bi hilabetez zaintzen aritu garen landareak bertara eramango ditugu, laginak hartu eta analisisa egiteko prestatuko ditugu.

Aukera hori aprobetxatuz, laboretegian egiten ari diren beste ikerketak ezagutuko ditugu, hala nola, lan-taldea eta haien eguneroko jarduna.

Ondoren Iruñera joango gara.

Bidaiaren kostua 13 eurokoa izango da, autobusa ordaintzeko erabiliko da diru hori.

DBH 4ko familiei oharra

Jakinarazten da 2023/24 ikasturterako Batxilergora sartzeko aurre matrikula epea **apirilaren 8tik 19ra** izango dela.

